

Enplegurako Formakuntza

2023ko azaroan, 2023ko ekitaldiko **LANBERRI Ibilbideak** jarriko ditugu abian, **Bizkaiko lurralde historikoan lan-aukerak sustatzeko**. Bizkaiko Foru Aldundiko Enplegu, Gizarte Kohesio eta Berdintasun Sailak diruz lagundutako ibilbideak dira.

Edizio honetan, 4 ibilbide eman dizkigute: mendekotasuna duten pertsonen **Gizarte-erakundeetan Arreta Soziosanitarioa** ematea, **Oxigas Soldadura eta MIG/MAG Soldadura**, eta biltegiko jarduera osagarriak, xede duten kolektiboaren arabera.

ZIG

ZIG-eko ikasleek **gutun bat** idatzi diote **alkateari**, mugikortasun arazoak dituzten **personentzako auzoaren irisgarritasuna hobetzeko** eskatuz.

Era berean, Otxarkoagako **aisialdirako guneak** behar bezala **mantentzea** eskatu dute.

Beste aldetik, ia bi hilabete darabagu lan egiten bai klasean, bai **tailerretan**. Eta etekinak nabaritzen ari dira. Orain dela gutxi SAT3ko ikasleak haien **lehenengo lana** eraman dute **zurgintzatik**. hemen ikusi ahal duzue batzuk. Kurtsoan zehar gehiago erakutsiko dizuegu.



Artxibategi historikoa

Dagoeneko eskuragarri daude, **SHAREPOINT, 00 98 ARCHIVO HISTORICO** delakoan, hainbat plan eta urtetako argazki zaharrak.

Asmoa da argazki berriagoekin eguneratzea; beraz, aurreko urteetako argazkiak baldin badi-tuzue, ez izan zalantzarik eta helbide honetara bidali denok ikusi eta gozatu ahal izateko:

alarrazabal@otxarkoaga.org

On Diego Berguices

Azaroaren 20an **101 urte** beteko dira Otxarkoaga CFko sortzailea, Diego Berguices, **jaio zenetik**, auzoaren historiako apaizik garrantzitsuenetako bat, **hezkuntza** eta **komunitateko lan ikaragarria** egin zuena.

Urtero bezala, azaroaren 15ean bazkari bat prestatuko da ikastetxeko langile guztientzat, eta garai bateko eta egungo lankideei omenaldia egingo zaie. 17an, ikasleekin batera jolas-ekitaldiak egingo dira.



Gutuna alkateari.



Lehenengo zurgintza lanak.

OMHZ

Arbolantxako eraikinean patineteak aparkatzeko beharraz jabetuta, Oinarrizko Mailako soldadurako ikasleek **patineteentzako apar-kaleku** baten **diseinua eta fabrikazio** profesionala egin dute. Behin hori amaituta, karrozeriako ikasleek gainazala prestatu, lixatu eta margo-tu egin dute.

Arrakasta dela eta, 6 plazako beste bat eraikitzen ari dira.



Agenda

- ✓ **Azaroak 6.** HETEL VII. Sariak **"Talentua Lanbide Heziketan"** BBK aretoan.
- ✓ **Azaroak 9.** Elizbarrutiaren Eguna. Gotzainaren prentsaurrekoarekin Ingurugiro gelan.
- ✓ **Azaroak 9-10.** Enpleguari buruzko VI. Kongresua **"Politika publikoak eta Euskadiko enpleguaren lehentasunezko erronkei emandako erantzunak"**.
- ✓ **Azaroak 14.** XIV. **Gazte Role Model Saria**. Begoñazpi ikastola.
- ✓ **Azaroak 15.** On Diego Egunaren ospakizuna ikastetxeko langileekin.
- ✓ **Azaroak 20.** On Diego Berguicesen jaiotzaren **urteurrena**.
- ✓ **Azaroak 22-23.** LHko Nazioarteko Topaketa. **"Avanzando hacia lo inimaginable"** Tabakalera (Donostia).
- ✓ **Azaroak 29** XIV. Hezkuntza Jardunaldia.



EMHZ / GMHZ

Erdi eta Goi Mailako 6 taldek hartu dute parte **Tknikako "Ethazik 10 urte: CONQUISTANDO EL FUTURO"** lehiaketan. Guztira, ikasleek prestatutako 6 bideo aukeratu dira lehiaketa honetan parte-hartzeko, LHn ETHAZI Ereduaren 10. urteurrena ospatzeko hain zuzen. *Short* hauetan ikasleek beren **enplegarritasuna sustatzeko** eta beren etorkizuna konkistatzeko gaketat jotzen dituzten gaitasunak edo talentuak identifikatu dituzte.

Informazio gehiago:

<https://ethazi.tknika.eus/es/ethazik-10-urte-conquistando-el-futuro/>



DBH

Otxarkoaga Heziketa Zentroa saritu zuten urriaren 21ean gure hezkuntza-proiektuan ezarritako **Irakurketa Errazaren Metodologiari** esker.

Hiru urte hauetan, helburua zera izan da: **irakurketa, gizarteratzea eta informazio-eskuragarritasuna sustatzea**, irakurtzeko zailtasunak dituzten ikasleen **motibazioa** bultzatuz.

Eskerrik asko eta Zorionak zuen 10 urteengatik!

